



MOVISTAR+ AHOTS-AGINTEAREN BALDINTZA BEREZIAK

1. BALDINTZA BEREZIAK ETA HORIEN ONARPENA

1.1. Xedea.

Ondoren deskribatzen diren Baldintza Bereziak (aurrerantzean, "Baldintza Bereziak") TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. (aurrerantzean, "MOVISTAR"), A-82018474 IFK zenbakiarekin, helbidea Madrilen duena, Gran Vía 28, 28013-n, Madrilgo Merkataritza-Erregistroan inskribatuta dagoena 13.170 liburukian; 0 liburua; 8. atala; M-213.180 orria, eta Zerbitzuaren BEZEROAren arteko (aurrerantzean, BEZEROA) kontratuzko harremanak arautzen dituzte, Movistar+ ahots-agintea izendatutako Zerbitzua emateari buruzko guztiari dagokionez (aurrerantzean, "ZERBITZUA").

1.2. Onarpena.

MOVISTAR-ek Zerbitzua eman ahal izateko ezinbestekoa da Baldintza Berezi hauek guztiak onartzea. BEZEROAK adierazten du, ildo horretan, Baldintza Berezi hauek irakurri, ulertu eta onartzen dituela, bere eskura jarrita daudenak une oro, webgune honetan: www.movistar.es/contratos

Halaber, Zerbitzuaren erabilera Telefónica-k BEZEROARI edozein moduren bidez jakinarazitako abisu, erabilera-arau eta jarraibideren pean dago, Baldintza Berezi hauetan aurreikusitakoa betetzen dutenak, hauek aurkaratzen ez dituzten bitartean.

1.3. Lotura Movistar zerbitzuaren baldintzekin.

Movistar-ekin kontratatutako zerbitzuen prestazioaren Baldintza Orokorrak, www.movistar.es/contratos helbidean argitaratuta daudenak, Baldintza Berezi hauek osatzen dituzte horietan aurreikusten ez denari buruz.<8>

2. HELBURUA

Baldintza hauek MOVISTAR-ek ematen duen Movistar+ ahots-agintearen ekipamenduaren salmenta erregimeneko Zerbitzua arautzen dute, bai eta Ekipamendu horren mantentze-zerbitzua ere.

3. EKIPAMENDUAREN DESKRIBAPENA

Baldintza Berezi hauek MOVISTAR-ek ematen duen "Movistar+ ahots-agintea" izendatutako ekipamenduaren zerbitzua arautzen dute, BEZEROAK Movistar-ek baimendutako salmenta-puntu batean, salmenta erregimenean eskuratu duena, edo 1004 zenbakiaren edo www.movistar.es helbidearen bidez eskuratu duena.

Gailu hori Aura plataformarekin konektatuta egongo da, zeinaren baldintzak www.movistar.es/contratos helbidean dauden, momentu honetan bakarrik bezero partikularrentzat, eta Baldintza Berezi hauek betetzen dituztenak horietan aurreikusten ez den guztiari dagokionez.

"Movistar+ ahots-agintea" zerbitzuarekin, BEZEROAK Telefónica de España S.A.U.-k eskaintzen dizkion zerbitzuekin erlazionatutako funtzionalitate eskuragarriak erabili ahal izango ditu. Zerbitzua emateko, beharrezkoa izango da BEZEROAK Movistar-ekin kontratatutako zerbitzuen informazioa sartzea.

3.1. Funtzionalitateak:

Gailuaren bidez emandako zerbitzuen artean funtzionalitate hauek aurkitzen dira:

- Movistar+ zerbitzuari lotutakoak:
 - Kanalen aldaketa, edukien bilaketa eta gomendatzailea, hasieratik erreproduzitzea, bolumena igo edo jaitea, etab.
 - -Konektibitate Infragorria (IR)
 - -Bluetooth Konektibitatea (BLE)
 - Deskoak agintetik igorritako agindua haien artean "ikusgaitasun" zuzena egon gabe jasotzea ahalbidetzen du. Hau da, agintearen estalduragunea handitzen da.
 - Kontuan izan behar da aginte bakoitza desko bakar batera egon daitekeela lotuta Bluetooth bidez; hortaz, Multi+ zerbitzua baduzu, beste aginte bat erabili beharko duzu etxean duzun beste deskoa kontrolatzeko.
- Movistar+ ahots-agintearen bidez aktiba daitezkeen beste funtzionalitate batzuk:
 - Sarbidea Living Apps-en Market Place-an eskuragarri dauden Living Apps-etara eta hirugarrenen aplikazioetara, bere baldintzetan zehaztutakoaren arabera, helbide honetan kontsultatu ahal direnak: www.movistar.es/contratos (desco UHD-rako bakarrik erabilgarri).

3.2. Kanpo gelditzen diren puntuak

Baldintza Berezi hauen xedetik kanpo gelditzen da:

- a) Ekipamendua eskuratzeko gastuak, horren erosketatik ondorioztatutako bidalketa-gastuak, BEZEROAK ordaindu beharko dituenak momentu bakoitzean indarrean dauden prezioen arabera.
- b) Erabilera txarragatik edo maneiu desegokiagatik, MOVISTAR-ek baimendutako kanaletatik kanpoko pertsonen manipulazioagatik eta ustekabeko edo ezinbesteko kasuengatik ondorioztatutako aberien konponketa berme komertzialetik kanpo gelditzen da, bai eta BEZEROAREN edo hirugarrenen erruagatik edo zabartasunagatik eragindako kalteak ere.

3.3 Bateriaezintasunak

- a) HD deskodegailuak, bere ezaugarri teknikoengatik, bakarrik konektatu ahal izango dira Infragorrien konektagarritasun bidez.
- b) Ahots-interfazea ez da bateragarria izango Horecas produktuarekin, hau da, lokal publiko eta apustuen lokalekin.

4. AHOTS-AGINTEAREN MANTENTZE-ZERBITZUA

Movistar-ek Ekipamenduaren mantentze-zerbitzua eskainiko du, adierazitako ekipamenduan ondoren zehazten diren baldintzen barruko ohiko erabileraren ondorioz gertatzen diren aberien konponketa estaltzen du, konponketarako eskulana, materialak eta beharrezko piezak Zerbitzuan sartuta egonez.

Ekipamenduaren konponketa, MOVISTAR-en irizpideen arabera, BEZEROAREN helbidean aberiatutako gailuaren konponketa edo prestazio berdinak dituen beste gailu batetik aldatzea izan daiteke (berrira jarritako gailu bat izan daitekeena). BEZEROAK aberiaren berri eman beharko du Arreta Teknikoko Zerbitzuan, 5. klausulan adierazitako baldintzen arabera, xede horretarako jarritako telefonoaren bidez, eta 1002 zenbakian aberiatutako terminala identifikatzeko beharrezkoak diren datuak eman beharko ditu.

5. BEZEROARENTZAKO ARRETA.

Kontratu honen arabera, MOVISTAR-ek, zuzenean edo baimendutako laguntza teknikoko zerbitzuaren bitartez, BEZEROARENTZAKO arreta-zerbitzua emango du, zeinak merkataritza-arreta eta laguntza teknikoa emango duen, eta zeinaren ezaugarriak Movistar+-en Baldintza Orokorretan deskribatzen diren:<http://www.movistar.es/contratos>

6. ZERBITZUAREN ERABILGARRITASUNA

Zerbitzua kontratatzeko, BEZEROAK banda zabaleko konexio bat izan beharko du, Satellitea ez den teknologiaren bidezko Movistar+-en telebista-zerbitzua izateaz gain.

Deskodetutako guztiak dira bateragarriak Movistar+ ahots-agintearekin, bi konektagarritasun mota erabiltzen baititu: Infragorriena eta Bluetooth bidezkoa; horrela, konektagarritasun batekin edo bestearekin funtziona daiteke. Hala ere, UHD deskodetutako modeloen modeloen bakarrik funtzionatzen dute bi konektagarritasunekin eta Bluetooth funtzionalitatea bakarrik egongo da erabilgarri deskodetutako horietan.

7. ZERBITZUAREN HASIERA ETA IRAUPENA

MOVISTAR eta BEZEROAREN arteko Akordioa Movistar+ ahots-agintearen gailua (salmenta erregimenean) eskuratzen den datatik aurrera sartuko da indarrean, eta gailua martxan jarriko da momentu horretan. Momentu horretatik aurrera, baldintza hauek eraginkor bihurtuko dira.

8. BEZEROAREN BETEBEHARRAK

8.1 Ekipamenduaren prezioa. Fakturazioa

8.1.1

Prezioa

BEZEROAK 10 €-ko (BEZa barne) zenbatekoa ordaintzeko betebeharra du (edo dagokion prezioa Ceutan, Melillan edo Kanariar Uharteetan bizi bada) Movistar+ ahots-agintea eskuratzeko, eta fakturaren bidez ordaindu beharko du zenbateko hori.

| Kontzeptua | BEZa (%21) | Ceuta IPSla (%10) | Melilla IPSla (%8) | Kanariar Uharteak IGICa (%4,75) |
|-------------------|-------------------|--------------------------|---------------------------|--|
| Movistar+ ahots- | 10 € | 9,0909 € | 8,9255 € | 8,8429 € |

8.1.2 Ordainketa

Zerbitzua emateari dagokion kontzeptu fakturagarria bezeroaren fakturaren bidez fakturatuko da.

8.2 Bezeroaren betebeharrak Movistar+ ahots-aginteari dagokionez

BEZEROAK betebeharrak hauek izango ditu:

a) Movistar+ ahots-aginteari ekipamendua jasotzen duenetik, MOVISTAR-ena den alokatutako ekipoa erabilera egokia eta manipulazio zuzena egiteko erantzukizuna. Gainera, alokatutako terminalen hondatze edo galeraren erantzule ere izango da, gertaera horiek bere erruarengatik izan ez direla frogatzeko gai denean izan ezik.

b) Berehala jakinaraztea MOVISTAR-i eskuratutako terminalaren inguruko edozein kalte, erreklamazio, ekintza, helegite edo enbargu.

c) Ekipamendua jasotzen den momentutik, ekipamenduaren erabilera onaren eta maneri egokiaren ardura. Terminalen hondatze (apurketa) edo galeraren erantzule ere izango da, gertaera horiek bere erruarengatik izan ez direla frogatzeko gai denean izan ezik.

9. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Movistar-ek jakinarazten du bere bezeroen datuak Movistar-en Pribatutasun-Politikaren arabera tratatuko direla, zeinaren oinarritzko informazioa klausula honetan jasotzen den. Potilikaren eduki osoa hurrengo estekan kontsulta daiteke: www.movistar.es/privacidad, ale bat eskatuz 1004 zenbakian edo Movistar Dendetan.

Izaera pertsonaleko datuen babeserako Europako araudiaren arabera eta aipaturiko Politikan ezarritakoa betez, Telefónica Taldeko hurrengo enpresak dira Movistar BEZEROAREN datu pertsonalen tratamendurako erantzukideak, kontratatuta dituen zerbitzu eta produktuen arabera: Telefónica de España, S.A.U. eta Telefónica Móviles España, S.A.U. (aurrerantzean eta guztiak batera, klausula honetan zehaztutako helburuetarako, "Movistar").

Movistar-en BEZEROAREN datuak Zerbitzua emateko tratatuko ditugu, eta baita beste helburu batzuetarako ere, Movistar BEZEROAK Pribatutasun-Politikaren baimentzen dizkigunak; gainera, Politika horretan BEZEROAK behar duen informazio guztia jasotzen da, BEZEROAREN baimena behar duten bestelako tratamendu batzuen gainean erabaki ahal izateko.

BEZEROAK egintza honetan kontratua betearazteko beharrezkoak diren emandako datu pertsonalak, Zerbitzua emateko lortutakoak eta baita arreta- eta merkataritza-kanalen bidez lortutakoak ere, izaera pertsonaleko datuen informatizatutako fitxategietan sartuko dira, Movistar-en titulartasunpean.

Pribatutasun-Politikari jasotako tratamenduez gain, Zerbitzuaren erabilerarako baldintza hauek onartzean, BEZEROAREN datuen, kontratatutako zerbitzuen, fakturazioaren eta Movistar+-en kontsumo-datuen tratamendu espezifikoa beharrezkoa izango da zerbitzua emateko, kontratuak dioena jarraiki.

Bestetik, Pribatutasun-Politikari aurreikusitako beste helburuetarako, Movistar-ek datuen erabilera bere kofiantzazko hornitzaileei esleitu ahal izango die. Hornitzaile horien kategorietan sailkatutako zerrenda eguneratua eta euren funtzioei jarraiki datuen nazioarteko transferentziak egiten dituztenena ere aurkituko duzu helbide honetan: www.movistar.es/privacidad/info-adicional.

Halaber, Movistar-ek datu horien isilpeko tratamendua ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituela bermatzen du eta jakinarazten dizu, aipaturiko araudiaren arabera, datu horiek atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurkarazteko eta eramateko eskubideak erabili ahal dituzula, ondorengo posta elektronikoa honetara idatziz: (Gaia: DATUAK) TE_datos@telefonica.com, idazki bat bidaliz 46155 Posta-Kutxa, 28080, Madril helbidera, edo doako 224407 telefono zenbakiaren bitartez.

10. ZERBITZUAREN BALDINTZEN ALDAKETA

MOVISTAR-ek Baldintza Berezi hauek aldatu ahal izango ditu ondoko arrazoi hauengatik: ekipo edo sareen ezaugarri teknikoen aldaketak, zerbitzua kaltetzen duten aldaketa teknologikoak, zerbitzua kontratatzean zeuden baldintza ekonomikoen aldaketa eta merkatuaren eboluzioa. Aldaketa hauek indarrean sartu baino hilabete bateko (1) aurrerapenarekin jakinarazi behar zaizkio BEZEROARI.

Kasu horietan, BEZEROAK Baldintza Bezeri hauetan araututako zerbitzuen prestazioaren erlazioa inolako penalizaziorik gabe ebazteko eskubidea izango du, BEZEROAK hartutako bestelako konpromisoerik kalterik egin gabe.

11. ZERBITZUEN ERABILERA EGOKIA

BEZEROAK Zerbitzuan sartutako zerbitzu eta prestazioen zentzuzko erabilera egiteko konpromisoa hartzen du, bai eta MOVISTAR-ek ematen dion lotutako beste edozein zerbitzuren ere. BEZEROA MOVISTAR-en aurreko erantzulea izango da MOVISTAR-i edo hirugarrenei kalte-galeren bat eragin ahal dien beste edozein erabileragatik eta, bereziki, bezero partikularren kasuan, izaera guztiz pertsonaleko komunikazioekin bat ez datorren edo zerbitzu horien birsalmenta edo merkaturatzea suposatzen duen MOVISTAR-en zerbitzuen beste edozein erabileragatik.

Baldintza hauetan aurreikusitako erabilera ezberdina berekin dakarten beste edozeini kalterik egin gabe, hauek izango dira, adibide gisa, erabilera egokiaren kontrako erabilerak:

- EKIPAMENDUAREN edozein funtzionalitate modu egokian ematea galarazi ahal dezaketen ekintzak gauzatzea.
- EKIPAMENDUA fisikoki irekitzea.
- Ekipamenduko elementu fisikoak aldatu edo gehitzea.
- EKIPAMENDUAREN homologazio ezaugarrietan aldaketa bat suposatzen duen parametroetako aldaketa bat egitea.
- Parametroetan aldaketaren bat egitea legez kontrako helburu edo efektuekin, Baldintza hauetan debekatuta daudenak, hirugarrenen eskubide eta interesak kaltetzen dituztenak.

12. BERMEA

Movistar-ek eskainitako gailu berri guztiek dute fabrikatzaileen bermea edozein desadostasunen aurrean (indarrean dauden kontsumo-baldintzen arabera) bi (2) urteko epean zehar Erabiltzaileari gailua ematen zaionetik. Terminalaren fabrikatzaileak, legez eskatzen direnez gain, beste edozein berme gehigarri eskaintzen bada, hauek Terminalarekin datorren berme-dokumentuan zehaztuko dira.

Dagokion berme-dokumentuan espresuki beste gauzaren bat zehazten ez bada, bermeak ez ditu estalduko gailuaren instalazio, erabilera edo manipulazio desagokitik ondorioztatutako, bere xedea ez den beste helburu baterako erabiltzeagatik edo erabilera-eskuliburuan adierazita ez dagoen bestelako erabileratik ondorioztatutako edo Movistar-en edota fabrikatzailearen kontrolatik kanpo dauden ezinbesteko edo ustekabeko kasuetatik ondorioztatutako akatsak, kalteak edo aberiak eta, orokorrean, Terminalarekin batera ematen den berme-dokumentuan zehaztutako beste edozein salbuespen.

Bermeak ez ditu estalduko merkataritza-bermetik kanpo gelditzen diren aberien konponketak, erabilera txarragatik edo maneiu desegokiagatik, MOVISTAR-ek baimendutako kanaletatik kanpoko pertsonen manipulazioagatik eta ustekabeko edo ezinbesteko kasuengatik ondorioztatzen direnak, ezta BEZEROAREN edo hirugarrenen erruagatik edo zabartasunagatik eragindako kalteak ere ez.

BEZEROAK MOVISTAR-en EKIPAMENDUA eskatuko balu eta honek aberia arestian aipatutako arrazoiren batengatik datorrela hautemango balu, MOVISTAR-ek bezeroari gailuaren zenbatekoa fakturatzeko eskubidea gordetzen du.